



KOMUNIKAZIOA

IN-KOMUNIKAZIOA

28. Oraineko Bilzarra
2019-06-10 eta 11 Arantza

IRAKASLEAK
Euzko Lehen Unibertsitatea



KUXKUXEROAK

Ikerketa talde kualitatiboa

Lorea Larrañaga Azpiazu, Mikel Baza Buena, Carlos Calderón Gómez, Sara Olariaga Arrazola, Cristina Cabrera Brufau, Ana Dosío Revenga, Elena Serrano Ferrández, Bea Aragón Martín, Maxi Gutierrez Jodra, Nabil Dinouri, Carmen Fando Lavalie, Maria Jose Fernández de Sanmamed Santos, Amaia Saenz de Ormijana, Ana María Uriarte, Miren Urquiza Bengoa, Juan Gervás Camacho.


“KONTSULTA SAKRATU” EN AURREAN FAMILIA-MEDIKUEK DITUZTEN PERTZEPZIO, JARRERA ETA JOKABIDEAK

HELBURUA

Osagai emozional bereziko kontsulteren aurrean, egile batzuek “kontsulta sakratu” bezala definituak, familia-medikuen (FM) hautemate eta jarrerak ezagutzea eta hobetze-arloak antzematea.

METODOA

- Metodologia kualitatiboa. Ikuspegi parte-hartzaile eta ikerketa-ikasketa bidez gauzatu.
- Diseinu deskribatzaile-interpretatzailea. 23 FM-rekin egindako 3 eztabaida-talde eta 3 banakako elkarrizketaren bitartez eskuratutako informazioa. Aniztasun diskurtsibora bideratutako intentsiozko laginketa. Baimen-informatuaren ondoren grabazio eta transkripzioen anonimizazioa. Etika-Batzordeari kontsulta.
- Kontzeptu-mapa eta MaxQDA programaren laguntzarekin testuen analisi tematikoa. Triangelukatzea ikertzaile eta parte-hartzaileen artean.



EMAITZAK

- Hiru arlo antzeman dira profesionalarekin, pazientearekin eta osasun-testuinguruarekin erlazonaturikoak, lotura anitz eta dinamikoen bidez gainjarriak.
- “Kontsulta sakratu” terminoaren egokitasuna zalantzan jarri da, gizatasuna profesionalaren eta pazientearen enkontruan inтрintsekoa dela ulerturik. Haren erregistroaren zailtasuna eta alor emozionalaren “kosifikazioa”/ikusezintasuna eragitearen beldurra ere aipatuz. Haren adierazpena medikuaren eta pazientearen arteko harremanean eraikitzen da, bi aldeek onartzen eta laguntzen badute.
- Hau guztia, artatzeko denborak, formazioak eta talde zein profesionalen heterogeneotasunak baldintzatutako testuinguruetan egiten den zainza jarraituan gertatuko da. Familia-mediku bezala konpromiso etikoa eta profesionaltasuna ezinbestekoak dira ondoez emozionalari erantzun ona eman ahal izateko.

ONDORIOAK

- Emozioen garrantzia onartzea pazientearen osotasunaren adierazle bezala, nahitaezko baldintza da kalitatezko LMA izateko.
- Adierazpide praktikoan jardutea ezinbestekoa da identifikazio, ebaluazio eta hobekuntza bultzatuz. Horrek, oztopo moduan, jarduten dutenen lan, hezkuntza eta antolaketa berrikusi eta aldatzea dakar, eta, bereziki, FM-en inplikazio eta profesionaltasuna bultzatzea.
- Ikerketa-ikaste esperientzia honek, baieztatzen ditu ikuspegi parte-hartzaileak LMA-n egin ditzakeen ekarpenak.